

Jakina denez, Larunbatean eraso bat jasan genuen Gaztetxean, baina ez da gauza puntual bat izan. Azkenaldian eraso desberdinak pairatu ditugu: lapurretak, pintada iraingarriak, gaztetxearekiko errespetu faltak, etab. Azpimarratu nahi genuke Gaztetxearen kontrako eraso oro herriaren kontrako eraso dela; eta, beraz, erasotzaileek ez dutela soilik asanbladaren kontra egiten, herri oso baten kontra baizik. Gauzak horrela izanik, erasotzaileei helarazi nahi diegu ez dugula horrelako jarrerarik onartuko.

Horrez gain, argi utzi nahi dugu Gaztetxea ez dela parrandarako gune soil bat, eta hau ez dela asanbladaren helburua. Gaur egun Gaztetxea sekula baino biziago dago. Momentu honetan hiru asanblada dira bertako proiektuaren parte: gorputz askeen asanblada, guraso asanblada eta gazte asanblada. Gainera, azkenaldian ekintza desberdinak antolatu dira, herria kultur eskaintza alternatiboz betez: oihal akrobatikoak, kooltur ostegunak, zinema, ingelesezko mintzapraktikak...

Azkenaldiko eraso eta jarrerek asanblada barruan tentsioak eragin dituztenez, zenbait erabaki hartu ditugu. Horietako bat, ekintzarik egon ezean Larunbatetan ez zabaltzea izan da. Hala ere, asanbladak erabaki hau hartu duen arren, herritar orori Gaztetxean egiten diren beste ekintzetara hurbiltzeko gonbidapena luzatu nahi diogu. Horrez gain, proiektu desberdinak aurrera eraman nahi izanez gero, Ostiralero 18:30ean egiten dugun asanbladara gonbidatzen zaituztegu.